



*Arbola eder bat dela medio  
jartzera noa bertsoak,  
mila urtean mantendu gaitu  
lau probintzia osoak.*

**Txirrita, 1886**

**Bertso berriak**

**«Zeruko aita, barka itzazu...»**



Euskararen Erakunde Nazionala  
Euskara Zerbitzua



**Euskara Zerbitzua**

# Kausa edo bitartekotza adierazten du *X-eLA MEDIO* esamoldeak.

- **Difusioa dela medio** sartzen dira ezpurutasunak silizioan.

(Amaia Ibarra, Txelo Ruiz (1991). "Zirkuitu integratuak: ordenadoreen miniaturizazioaren bultzatzaile". <http://www.zientzia.net>)

- **Denborarekin, mihiztadura dela medio**, energia hori poliki-poliki bigarren osziladorera pasatuz doa.

(Jose Ramon Etxebarria, Fernando Plazaola et alii (1992). *Mekanika eta uhinak*. Bilbo: UEU.)

- **Oria-ren ibaibidea zabaltzeko lanak zirela medio**, beste arku bat erantsi behar izan zioten zubiari.

(Julio Nuñez (1995). *1990 urtea baino lehenagoko Gipuzkoako zubien katalogoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.)

**IZAN** aditz jokatua behar du esamolde horrek,  
zuzena izan dadin:

- Badakit zer **DELA** medio errezibitzen nauzun horrelako serio.
- Istripuen kopuruak gora jo du, lan-baldintza txarrak **DIRELA** medio.



**Ez dira zuzenak**, horregatik, honako esaldi hauek:

?Txikituta gelditu ziren bazterrak, **euri-erauntsiak eta uholdeak medio**.

?Baraua **medio**, laster osatuko da.

?Lukurreria eta **espekulazioa medio** sartu da mundua ekonomia-atzeraldian.

Hau da erabilera zuzena:

- Txikituta gelditu ziren bazterrak, euri-erauntsiak eta uholdeak **zirela medio**.
- Baraua **dela medio**, laster osatuko da.
- Lukurreria eta espekulazioa **direla medio** sartu da mundua ekonomia-atzeraldian.

Guztiarekin ere, baditugu euskaraz, kausa edo bitartekotza adierazteko, beste zenbait erremedio:

X DELA ETA

X DELA BIDE

X DELA KAUSA

X BITARTE(KO) DELA / X DELA BITARTE(KO)

-(r)EN BIDEZ

-(r)EN BITARTEZ

-(r)EN MEDIOZ *Ipar.*

-(r)EN KARIAZ *Ipar. Jas.*

-(r)EN KARIETARA *Ipar.*



## X DELA ETA

- Baina ikur linguistikoaren arbitrariotasunak beste ondorio bat dakar, Saussuren ustez: **tasun hori dela eta**, gai fonikoaren eta ideiaren arteko egokitasuna, hau da, adierazlearen eta adieraziaren artekoa, alda daiteke. (Ferdinand de Saussure. *Hizkuntzalaritza orokorreko ikastaroa*. Itzul.: Isabel Arrigain, 1998.)

## X DELA BIDE

- Epelak esaten dizkiote elkarri, **edozein aitzakia dela bide**.
- Hizkuntzaren bat ikasten ari direnen artean badira ustean direnak hartaz mintzatzen ikasiko dutela **noizbehinkako liburuak direla bide**.

## X DELA KAUSA

- **Kolpe bortitza dela kausa** handitu zaio belauna.
- **Bozak direla kausa**, sutan jarri dira.

## X BITARTE DELA / X DELA BITARTE

- **Gezurrak zirela bitarte** konbentzitu zuten, Montebideora lanera joateko.
- (67) ri Tw formaldatzea ezartzean, lehenik (68) eratortzen dugu, **Tw1 bitarte dela**, eta gero (69), Tw2 urratsaren bitartez.

(Noam Chomsky. *Egitura sintaktikoak*. Itzul.: Itziar Laka, 2003)

## -(r)EN BIDEZ

- **Metodo horien bidez**, erlazio ekonomikoak kuantifika daitezke, eta emaitzek propietate egokiak dituztela bermatu.

## -(r)EN BITARTEZ

- **Arrazoimen hutsaren kritikaren bitartez.**



## -(r)EN MEDIOZ *Ipar.*

- Politikaren medioz finkatuko da eskualdearen geroa.

## -(r)EN KARIAZ *Ipar. Jas.*

- Ahaide hurbilekiko tratua ez da beti lagungarri izaten, **hurbiltasunaren kariaz**, kaltegarri baizik. Konfiantza gehiegia sortzen baitigu, beti ernai eduki behar genukeen mesfidantza lokarraraziz.

(Koldo Mitxelena. *Euskal idazlan guztiak. Hizkuntzalaritzaz I*, 1988.)

## -(r)EN KARIETARA *Ipar*

- Festa antolatu genuen, **Maiteren urtebetetzearen karietara.**